

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

ORDENANTZA FISKALA, KIOSKOAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua: OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorrira, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa ezarri da, bide publikoan kioskoak jarteak dakarrena hain zuzen ere. Tasa hori ordenantza fiskal honek arautuko du, eta haren arauak Foru Arauaren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA

Herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da tasa honen egitate ezargarría.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA

Subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasotzen dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

4. artikulua: TASA KUOTEA

Hauexek osatuko dute tasa kuota:

- a) Emakidaren kanona, emakida barriak aplikatzeko.
- b) Hiruhileko tarifa m2ko aplikatzeko, ordenantza hau onetsi daneko indarreko emakidetarako.

5. artikulua: KANONA ETA TARIFAK

Enkantearen errematearen tarifa adjudikaturiko eremuari aplikatzearen emoitza zenbatekoa izango da emakidaren kanona, eta metro koadroko lizitazioaren gutxieneko kopuruak izango dira aldean arabera, adjudikazio aldía 10 urtekoa danean:

	2021(€)
1. aldea	650,10
2. aldea	477,72
3. aldea	308,09

4. aldea	260,02
5. aldea	207,46
6. aldea	158,26
7. aldea	137,35
8. aldea	123,21
9. aldea	85,36
10. aldea	67,73
11. aldea	48,93
12. aldea	26,53
13. aldea	4,84
M ² -ko edo zatika hiruhileko tarifak, ordenantza hau onetsi baino arinagoko emakidei jagokezanak, honeexek dira:	
- Lamera	70,18
- Tala	6,74
- Erribera	13,50

Instalazio berrien kasuan, 10 urtetik gorako aldian, lizitazioaren gutxieneko kopuruak azterketa honetan agertzen dan alde muetaren eta erabilera muetaren araberakoa izango da m²ko: "Herri jabariaren aprobetxamendua eta erabilerearen tasearen balorazioaren ganeke azterketea".

6. artikulua. SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da:

- Erabilera pribatiborako herri jabariaren adjudikazioaren unean.
- Adjudikazioaren egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunean eta gero hiruhileko naturalaren lehen egunean emakidak dirauen bitartean.

7. artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETA

Holan ordainduko da tasa:

- Bide publikoaren aprobetxamendu berriak emoten diranean, lizentzia edo emakida eskatzen den unean.
- Baimendutako aprobetxamenduak direnean, tarifako aldi natural bakoitzaren lehen egunean.

AZKEN XEDAPENA

Kiosko honeen araubideari kalterik egin barik ulertuko da ordenantza hau: Lamera 2.